

2026KO MAIATZAREN 4KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita seiko maiatzaren 4an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- FAKTURAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2026ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 20 zenbakidun zerrenda, EHUN ETA HAMAR MILA ETA BERROGEITA BAT euro ETA HOGEITA BAT zentimokoa (110.041,21 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

II.- GURUTZE KALEKO 3. ATARIKO AURREALDEA BERRURBANIZATZEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA.-

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko apirilak 20an egindako bilkuran, Mikelar, 4-5ean berrurbanizazio obra, prozedura ireki sinplifikatu bidez eta lehiaketa bidez, esleitzeko kontratazio espedientea eta honi dagozkion baldintza teknikoak eta administrazio baldintza partikularren agiriak onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lehiaketaren deialdia kontratatzailearen profileen argitaratu eta proposamenak aurkezteko jarritako epean, bi proposamen aurkeztu ziren, eta lehen sailkatua SASOI ERAIKUNTZAK S.L. lehen sailkatua izanik, honi esleitzea proposatzen da.

45.800 € + BEZ (3 hilabeteko epean).

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

III.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Euskara ikasten ari direnei.-

2025/2026 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren

ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bat izan da eta emango zaien kopurua 257,00 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2026ko aurrekontuaren 480.01.335.00 partidatik.

XV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Joxemai. Apirilean egin ez zen osoko bilkurako Alkatezaren Ebazpenen zerrenda edukitzea gustatuko litzaieke. Idoiak bidaliko diela esaten die.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeta bi direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.